

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Elektronika: osagai elektroniko ezberdinak ezagutzea, beren definizio eta ezaugarriekin; baita, hauen funtzionamendua eta zirkuitu batean duten erabilera ezagutzea.</p>	<p>1.1. Erresistentzia elektronikoa definitu eta bere ezaugarri eta erabilerak zehaztu ditu, baita bere funtzionamendua ere.</p> <p>1.2. Erresistentzia elektronikoak beren kolore-kodearen bidez identifikatu ditu.</p> <p>1.3. LDRa (Light-Dependent Resistor) definitu eta bere ezaugarri eta erabilerak zehaztu ditu, baita bere funtzionamendua ere.</p> <p>1.4. Termistorea definitu eta bere ezaugarri eta erabilerak zehaztu ditu, baita bere funtzionamendua ere.</p> <p>1.5. Material erdieroaleak definitu eta diodoetan hauen erabilera zein den zehaztu du.</p> <p>1.6. Diodo komertziala definitu eta bere ezaugarri eta erabilerak zehaztu ditu, baita bere funtzionamendua ere.</p> <p>1.7. LEDa zer den definitu eta bere ezaugarri eta erabilerak zehaztu ditu.</p> <p>1.8. Txipa edo miniaturizatutako zirkuitua definitu eta bere ezaugarri eta erabilerak zehaztu ditu.</p>
<p>2. Ordenagailu bidezko programazioaren oinarriak ezagutzea, hala nola, blokekako programazioa, algoritmo ezberdinen erabilera, bukleen erabilera eta baldintzapeko funtzioen erabilera.</p>	<p>2.1. CODE.org plataformaren bitartez proposaturiko ariketak aurrera eramateko gai da.</p>
<p>3. Arduino plaken funtzionamendua ezagutzea, aurretik ezagututako elementu elektronikoak baliatuz.</p>	<p>3.1. Proposatutako praktikak talde txikitan osatu dituzte, bai TinkerCAD programan norbanako simulazioak eginez, baita zirkuituak fisikoki muntatu eta Bitbloq programa erabiliz Arduino plaka programatuz.</p>